

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

B2 maila

Entzumena
EREDUA: 1-A

ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposaturiko denbora
Entzumena	10	20	25 minutu inguru

ENTZUMENA

Ondoren, hiru testu entzungo dituzu. Testuak **bi aldiz** entzungo dituzu.

Egitekoa: Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

*Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko duzu. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

1. TESTUA: Dinosaurioak

Orain, **minutu eta erdi** duzu **lehen testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko. 0 galdera adibidea da.

Adb.: 0.- Zientziaren arabera, zer harreman dago dinosaurio eta hegaztien artean?

- a. Hegazti batzuk dinosaurio bihurtu ziren.
- b. Hegaztiak dinosaurioetatik datoz.
- c. Hegazti gutxi batzuk dira dinosaurioetatik datozenak.

1.- Dinosaurioak hegazti bihurtu zirela...

- a. hipotesia da.
- b. eztabaida ezina da gaur egun.
- c. gezurtatu dute duela gutxi.

2.- Zer da *Archaeopteryxa*?

- a. Hegazti bat.
- b. Dinosaurio bat.
- c. Fosil mota bat.

3.- Aipatutako unibertsitateko ikerketak orain arteko hipotesia...

- a. erabat zalantzan jarri du.
- b. gehixeago indartu du.
- c. ordezkatu du.

4.- Zeren arabera sailkatu zituzten dinosaurioak?

- a. Arrautzak jartzeko moduaren arabera.
- b. Jartzen zuten arrautz-kopuruaren arabera.
- c. Arrautzen tamainaren arabera.

5.- Ikerlariek dinosaurioek arrautzak nola berotzen zituzten...

- a. azaldu dute..
- b. frogatu berri dute.
- c. argitu gabe dute

6.- Zer diote zientzialariek gai honi buruz?

- a. Zalantzarria dela dena.
- b. Egokia dela dinosaurioak bi multzotan sailkatzea.
- c. Dinosaurioen eta txorien arteko lotura gero eta ilunagoa dela.

Idatzi zeure aukera erantzun-orrian

ENTZUMENA

2. TESTUA: Norvegiarrak

Orain, minutu eta erdi duzu bigarren testuari dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko. 0 galdera adibidea da.

Adb.: 0.- Nork erabaki du norvegiar gazteei aurrezten irakastea?

- a. Norvegiako gobernuak.
- b. Norvegiako banku batek.
- c. Norvegiako ekonomialariek.

1.- Nolakoa da Norvegiako kreditu-sistema?

- a. Hemen baino oztopo gehiago jartzen da kreditua emateko.
- b. Gazteek lanean hastean itzul dezakete eskatutako kreditua.
- c. Lanean ari direnek bakarrik eska dezakete kreditua.

2.- Zertan dira ausartagoak Norvegiako gazteak?

- a. Ikasketak aukeratzeko orduan.
- b. Lana atzerrian bilatzeko orduan.
- c. Banketxeei dirua eskatzeko orduan.

3.- Nolakoak dira etxebizitzaren prezioak Norvegian?

- a. Lehen baino garestiagoak dira.
- b. Duela urte batzuk baino merkeagoak dira.
- c. Egonkorrak, prezioak ez baitira aldatu.

4.- Estatistikek diotenez...

- a. gehien aurrezten duten herriek petrolioa erosten dute.
- b. petrolioa duten herriek gehiago aurrezten dute.
- c. petrolioa duten herriek diru gutxi aurrezten dute.

5.- Baliabideei probetxua ateratzen eredugarri izango litzateke...

- a. Norvegia.
- b. petrolioa duen edozein herrialde.
- c. Kuba.

6.- Kultura protestanteetan...

- a. familiatik jasotzen dute aurrezteko ohitura.
- b. eskola arduratzen da aurrezten irakasteaz.
- c. galdu egin da aurrezteko ohitura.

7.- Zer pentsatzen dute gure aitona-amonek?

- a. Norvegiako zaharrek pentsatzen duen berbera.
- b. Esfortzuaren kultura kaltegarria dela.
- c. Belaunaldi gazteei gauzak errazago jarri behar zaizkiela.

Idatzi zeure aukera erantzun-orrian

ENTZUMENA

3. TESTUA: San Jordi eguna

Orain, **minutu eta erdi** duzu **hirugarren testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko. 0 galdera adibidea da.

Adb.: 0.- Zer zen aipatzen den santua?

- a. Printzea.
- b. Zalduna.
- c. Apaiza.

1.- Elezaharraren arabera, nolako zalduna zen Jordi?

- a. Erraz haserretzen zen.
- b. Heroi guztien modukoa.
- c. Beldurtia zen.

2.- Zer iruditzen zaio Haritzi alaba guztiek horrelako senarrik nahi ez izatea?

- a. Kezkagarria.
- b. Pozgarria.
- c. Harrigarria.

3- Nondik dator San Jordi eguneko arrosaren sinboloa?

- a. Liburu-saltzaileek asmatutako istorio batetik.
- b. San Jordik kontatutako istorio batetik.
- c. San Jordiri buruzko kontakizunetik.

4- Salmentei dagokienez, aurtengo San Jordi egunean...

- a. arrosa adina liburu saldu dira.
- b. liburu gehiago saldu dira arrosak baino.
- c. arrosa gehiago saldu dira liburuak baino.

5- Nolako eragina du San Jordi egunak liburu-salmentan?

- a. Egun horretan eta aurrekoetan salmenta igo egiten da.
- b. Egun horretan liburuen prezioak behera egiten du.
- c. Egun horretan saltzen da urte guztian saltzen denaren erdia.

6- Zer dio Haritzek liburu mediatikoei buruz?

- a. Gainontzeko liburuak baino gehiago saltzen direla.
- b. Pertsona ospetsuek promozionatzen dituztela telebistan.
- c. Horrela esaten zaiela pertsonaia ezagunek idatzitakoei.

7.- Azken San Jordi egun honetan Lleidan...

- a. liburuez gain, beste gauza asko saltzen zuten merke.
- b. barruko arropa ere merke-merke saltzen ari ziren.
- c. liburuak bakarrik saldu ziren.

Idatzi zeure aukera erantzun-orrian